

# GUREAK OTE, BETIKOAK OMEN:

## DANTZARIAK, DANTZA-AROK, DANTZA-ERAK, DANTZA EROAK.

(I)

Esaldi horri buruzko hausnarketarekin hasi zuen Patxi Labordak Basaurin, urtarrilaren 27an, 10.00etan, Ibaigane Kultur Etxean eskaini zigun hitzaldia.

"Gureak ote, betikoak omen?". Horretaz hitz egiten dugunean, pentsatzen dugu gure tradizioko hainbat dantza eta melodia geureak direla, bereziak eta oso aintzinean errotutakoak, baina hizlariak erraz aldarazi zigun iritzi hori.

Patxi Labordak, dantza-maisu eta dantzen berreskuratze- edo birsortze-prozesuetan adituak, hauxe defendatzen du: tradizioa egunero eraberritzen dela. Eta esaldi hau erabili zuen hori adierazteko: "zaharra ez da izandakoa, luzaroan dena baizik". Hainbat adibide erakargarri eta esanguratsu aurkeztu

zituen, eta ikus-entzuleek teoria horrekin bat egitea lortu zuen Patxi.

(II)

"Itxi begiak. Zer irudi datorkizu burura *dantzari* hitza entzutean?". Horrela aurkeztu zitzaigun Patxi Laborda urtarrilaren 27an, Basauriko Kultur Etxean.

Galdera horri erantzutearekin batera, argi ikusi genuen euskal dantzaren inguruan dugun pertzepzioa oso itxia dela: burura etorri zitzaigun gizonezko bat, zuririk, txapelduna, gerrikoa jantzita eta hanka sudurreraino igotzeko gai. Baina, hitzaldian zehar, beste hainbat aukera dagoela erakutsi zigun Patxi.

Era berean, tradizioari buruzko ikuspegi nahiko estatikoa dugula konturatu ginen, gaur egungo dantza tradizionalak euskal dantzen aspaldiko ezaugarri berberak dituztela uste izan baitugu.

Patxiren berbetan, "ez dago tradizioarik aldaketarik gabe", eta horren adibide ugari eman zituen.

Euskal dantzak euskaldunok sortuak izan diren ustea ustela dela esateko, umorea erabili zuen. Argi utzi zuen kanpoko eta bertoko dantzen moldaketaren ondorioak baino ez direla.

Bukatzeko, dantza taldeei garrantzirik kendu barik, plazan dantzaz eta inprobisazioaz gozatzeko aldarrikapena egin zuen.

Momentu horretan, begiak ireki, eta argia ikusi genuen.

